

Maite Alonso, presidentea  
Begoña Cabria  
Ainara Ibañez  
Aitor Idigoras  
Ana Marta Iriarte  
Mari Tere Ojanguren  
Idoia Pujana  
Lourdes Villardon  
Jone Unzueta  
Eva Blanco, idazkari teknikoa

## 21/02 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2021eko martxoaren 4ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Dekretu proiektua, zeinaren bidez laugarrenez aldatzen baita hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratadun langileen lanpostuen zerrenda onartzen duen Dekretua.**

## I.- AURREKARIAK

Uztailaren 4ko 186/2017 Dekretu bidez onartu zen EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratadun langileen lanpostu zerrenda (2017ko abuztuaren 29ko akats-zuzenketarekin).

Geroztik, martxoaren 6ko 34/2018 Dekretu bidez eta apirilaren 24ko 61/2018 Dekretu bidez aldatua izan da. Kontseilu honek bi horiei buruzko irizpenak eman ditu.

Apirilaren 5eko 66/2005 Dekretuak sortzen eta arautzen ditu Hezkuntza bereziko irakaskuntzaz besteko lan kontratadun langileen hizkuntza eskakizunak.

## I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 2 artikulua, 2 azken xedapen eta 2 eranskin ditu.

1. artikulua Eranskinetako lanpostu zerrendetan egindako aldaketak onartzen ditu.

2. artikulua ezartzen du toki-aldatze lehiaketa izango dela I eranskinean dauden lanpostuak hornitzeko sistema.

Azken lehen xedapena errekurtsioak jartzeko prozedurei buruzkoa.

Azken bigarren xedapenak dio noiz sartuko den araua indarrean.

### III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Batzorde Iraunkorrek 20/03 Irizpenean hirugarren aldiz aldatzen duen dekretuari buruzko irizpena eman zuen. Dekretu horretan 40 plaza berri sortu ziren: 36 hezkuntza-laguntzako espezialistarenak (HLE), 2 fisioterapeutarenak eta 2 terapeuta okupazionalarenak, eta lanpostu batzuen hizkuntza-eskakizuna aldatu zen.

Urtebete baino gutxiago igaro ondoren, proposamen berri hau aurkeztu da, honako aldaketa hauekin:

- 50 plaza berri sortzea: 49 hezkuntza-laguntzako espezialistarenak (HLE), 18 Araban, 21 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan, eta zeinu hizkuntzako interpretarako plaza bat; plaza hori langile mugagabe ez-finko bat deklaratzeko duen epai bat betearazteko sortu da.
- 1HE duten eta derrigortasun-datarik ez duten HLEko bi lanposturen hizkuntza-eskakizuna aldatu egin da, eta HLEA izango da, derrigortasun-data betea. Plaza horiek ez daude beteta.

Taula honetan jasota daude indarrean dagoen LPZ eta proposatzen diren aldaketak:

<i>Jomugak</i>	<i>egungo</i>	<i>Aldaketa</i>
Fisioterapeuta	32	32
Gizarte langilea (Desagertzear)	3	3
Hezkuntza laguntzarako espezialista	686	<b>735</b>
Okupazio-terapeuta	10	10
Material transkribatzailea eta egokitzailea	4	4
Zeinu hizkuntzako interpretea	4	<b>5</b>
<b>LPZ organikoa guztira</b>	<b>739</b>	<b>789</b>

LPZ funtzionalari dagokionez, 2019-20 ikasturtean lanaldi osoko HLEko 810 plaza egon dira eta 2020-21 ikasturtean 849 lanpostu; gainera, 2019-20 ikasturtean lanaldi erdiko 190 kontratazio egin dira eta 2020-21, 197 lanpostu. Berrikuntzako Zuzendaritzaren memorian adierazi bezala, aldaketa hori gertatu da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak nabarmen ugartu direlako, batik bat, hezkuntza-laguntza espezializatuari dagokionez. H.p.b.k dituzten eta LPZ honetako figura profesionalen bat esleituta duten ikasle kopuruaren bilakaera oso esanguratsua izan da azken 2 urteetan, koadro honetan ikus daitezkeen bezala:

#### **Irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileak esleituta dituzten eta h.p.b.k dituzten ikasleen bilakaera.**

	2019-20	2020-21
Hezkuntza laguntzarako espezialista	2.372	2.550

Zeinu hizkuntzako interpretea	11	17
-------------------------------	----	----

**Batzorde Iraunkorrak begi onez ikusten du irakaskuntzaz besteko langileen LPZ organikoan 50 plaza gehiago sartzea. Era berean, ados dago proposatzen den 2 lanpostuko hizkuntza-eskakizunaren aldaketarekin, ikasleen beharrei erantzuteko.**

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2021eko martxoaren 4an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA